

OÑATIKO UDALA

Oñatiko Udalak, 2021eko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako akordio hau hartu zuen:

Lehenengoa

Onartzea dirulaguntza lerro honen oinarriak:

- Oñatiko XIV. Erakusleihu Lehiaketa.

Bigarrena

2021eko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko guztira 1.700€ko gastua baimentzea, udal aurrekontuen 1 1000.480.241.05.01 2021 (5578) diru-ataletik eta bere lotespen mailatik.

Hirugarrena

Onartzea 2021eko deialdiari dagozkion epeak:

- Izena emateko epea: 2021eko azaroak 30.
- Erakusketaren epea: 2021eko abenduaren 7tik 31ra bitartean.

Laugarrena

Erabaki honen bidez onartutako oinarriek eragina izango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean erabakiaren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

El Ayuntamiento de Oñati, reunido en Sesión Plenaria de fecha 28 de octubre de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:

Primero

Aprobar las bases de la siguiente línea de subvenciones:

- XIV. Concurso de escaparates de Oñati.

Segundo

Aprobar la convocatoria de 2021 y autorizar del presupuesto municipal un gasto total de 1.700€ para la financiación de estas ayudas, con cargo a la partida presupuestaria 1 1000.480.241.05.01 2021 (5578) y grado de vinculación.

Tercero

Aprobar los plazos correspondientes a la convocatoria 2021:

- Plazo de inscripción: 30 de noviembre del 2021.
- Plazo de la exposición: Del 7 al 31 de diciembre de 2021.

Cuarto

Las bases aprobadas mediante el presente acuerdo surtirán efectos desde el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a

hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Guber­nu Batzordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze­koa berariaz ebatzi arte edo presuntzios ezetsi arte. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Oñatin, 2021eko urriaren 28an - Izaro Elorza Arregui, Alkatea.

partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

En Oñati, a 28 de octubre de 2021 - Izaro Elorza Arregui, La Alcaldesa.

OÑATIKO XIV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Lehiaketa honetan Oñatiko denda/zerbitzu guztiak parte hartu ahal izango dute.

2.- **Izena emateko epea azaroaren 30**arte egongo da zabalik. Izena ematea internet bidez egin beharko da, dokumentu honen amaieran dagoen QR kodea eskaneatuta eta izen emate orria beteta.

3.- Erakusketaren epea, gutxienez, **abenduaren 7tik 31ra bitartekoa** izango da (biak barne), erakusleigoaren muntaia abenduaren 7rako egina egon beharko delarik.

4.- Erakusleigoan, **denda-zerbitzuaren ohiko produktuak** jarri beharko dira.

5.- Erakusleigoen balorazioa egiterakoan, epaimahaiak kontutan izango dituen irizpideak hauek izango dira:

- *Konposizioa.*
- *Argiztapena.*
- *Koloreak.*
- *Originaltasuna*

6.- Sariak Oñatiko Udalak emandakoak izango dira, honela banatuko direlarik :

- *Lehenengo saria*500€
- *Bigarren saria*300€
- *Hirugarren saria*.....200€
- *Herritarren saria*..... 500€

7. Lehenengo hiru sariak epaimahaiak aukeratuko ditu. Epaimahai hau erakusleigo-apainketa arloko adituek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia aldezina izango da.

8.- Herritarren sariaren irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko herritarrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleigoa

BASES DEL XIV. CONCURSO DE ESCAPARATES DE OÑATI

1.- Podrán tomar parte en este Concurso todos los establecimientos comerciales o de servicios de Oñat

2.- El **plazo de inscripción estará abierto hasta el 30 de noviembre**. La inscripción se realizará a través de internet, escaneando el código QR a pie página y rellenando el formulario de inscripción.

3.- El **plazo de exposición** será como mínimo **del 7 al 31 de diciembre** (ambos inclusive), debiendo estar montado el escaparate para el día 7 de diciembre.

4.- En el escaparate se expondrán los **productos propios del establecimiento** comercial o de servicios.

5.- A la hora de realizar la valoración de los escaparates, el jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios:

- *Composición.*
- *Iluminación.*
- *Color.*
- *Originalidad.*

6.- Los premios serán aportados por el Ayto. de Oñati, y serán los siguientes :

- *Primer premio*500€
- *Segundo premio*300€
- *Tercer premio*.....200€
- *Premio popular*..... 500€

7.- La elección de los tres primeros premios corresponderá al jurado, que estará compuesto por personas expertas en el ámbito de decoración de escaparates. La decisión del jurado será inapelable.

8.- El ganador del premio popular se elegirá a través de votos de los ciudadanos y ciudadanas de Oñati. El

izango da sari honen irabazlea.

9.- Herritarren sariaren aukeraketa internet bidez egingo da. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta hautaketan parte hartzeko epea abenduak 17ko eguerdiko 14:00 arte egongo da zabalik. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian, udalaren web orrian eta parte hartuko duten erakusleihoetan jarriko dira bozkatu ahal izateko QR kodeak.

10.- Bozketan parte hartzen duten herritarren artean, 200 Euroko saria zozketatuko da.

11.- Sari banaketari buruzko xehetasunak aurrerago jakinaraziko dira.

12.- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek onartu beharko ditu.

escaparate que obtenga más votos será el ganador de este premio.

9. La participación en la elección del premio popular se realizará a través de internet. Solo se aceptará un único voto por persona y el plazo para participar en la votación finalizará a las 14:00 horas del 17 de diciembre. Los códigos QR para votar se publicarán en la revista Kontzejupetik de diciembre, en la página web del ayuntamiento y en los escaparates participantes.

10.- Se sorteará un premio de 200 Euros entre todas las personas que participen en la elección del premio popular.

11.- Los detalles de la entrega de premios se comunicarán más adelante.

12.- Los participantes del concurso deberán acatar estas bases.